

# NORMATIVA SOBRE LAS ACTIVIDADES ARQUEOLOGICAS EN ALAVA
# ARABAN EGITEN DIREN ARKEOLOGI IHARDUEREI BURUZKO ARAUTEGIA

## INTRODUCCION

*La preocupación por el Patrimonio Arqueológico y la sensibilización hacia su conocimiento y conservación es una realidad cuyo calado aumenta día a día en la sociedad.*

*Las Administraciones, conscientes de su deber hacia esta herencia cultural, necesitan establecer los cauces para el estudio, conocimiento y difusión de este Patrimonio sin menoscabo para su integridad y conservación.*

*Esta normativa, que desarrolla la Ley 7/1990 de 3 de Julio de Patrimonio Cultural Vasco, pretende sistematizar las actividades arqueológicas de acuerdo con los fines expuestos.*

## SARRERA

*Ondare Arkeologikoarenganako ardura eta bere ezagupen eta artapenarekiko gizartean egunetik egunera haundituz doazen errealitateak dira.*

*Herri Erakundeek, jasotako kultur ondare horrenganako bere eginbeharraz oharturik, haren azterketa, ezagupen eta zabalkunderako bideak jarri behar dituzte, bere osotasun eta artapenaren kalterik gabe.*

*Arautegi honek, zeinek Euskadiko Kultur Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990eko Lega garatzen duen, arkeologi iharduerak azaldutako helburuekin bat sistematizatzea du helburu.*

**DIPUTACION FORAL DE ALAVA**

DEPARTAMENTO DE CULTURA

**DECRETO FORAL 323/1991, del Consejo de Diputados de 23 de abril, por el que se aprueba la Reglamentación sobre actividades arqueológicas en el Territorio Histórico de Alava.**

La Ley 7/1990, de 3 de julio, de Patrimonio Cultural Vasco, recogiendo el espíritu del Estatuto de Autonomía del País Vasco, aprobado mediante la Ley Orgánica 3/1979, de 18 de diciembre, y de la Ley 27/1983, de 25 de noviembre, de Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los Organos Forales de sus Territorios Históricos, en la materia de su competencia, diseña una política cultural que sienta la base jurídica sobre la que debe descansar el régimen de protección del Patrimonio Cultural de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

En cumplimiento de lo dispuesto en la citada Ley de Patrimonio Cultural Vasco y al objeto de propiciar la conservación del Patrimonio Arqueológico existente en el Territorio Histórico de Alava, así como promocionar los proyectos de actividades que incidan directamente sobre dicho Patrimonio, compete a la Diputación Foral de Alava regular por vía reglamentaria (artículo 45.4) el desarrollo de las actividades y el establecimiento de los dere-



**ARABAKO FORU ALDUNDIA**

KULTURA SAILA

**323/1991 FORU DEKRETUA, apirilaren 23ko Diputatuen Kon-tseiluarena, zeinen bidez Arabako Herrialde Historikoan egiten diren arkeologi iharduerei buruzko arauketa onesten den.**

Euskadiko Kultur Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legeak, abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoaren bidez one-tsitako Euskal Herriko Autonomi Estatutuaren eta Autonomi Elkarte Osoko Erakundeen eta bertako Herrialde Historikoetako Foru Erakundeen arteko harremanei buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legearen izpiritua jasoaz, bere eskumeneko gaian, Euskal Herriko Autonomi Elkartearen Kultu Ondarearen babes erregimena finkatu behar den oinarri juridikoa jartzen duen kultur politika bat tajutzen du.

Euskadiko Kultur Ondareari buruzko aipatu Legean ezarritakoa betez, eta Arabako Herrialde Historikoan dagoen Arkeologi Ondarearen artapena bultzatzeko eta esandako ondarean zuzeneko eragina duten iharduera proiektuak sustatzeko, Arabako Foru Aldundiari dagokio erregelamendu bidez (45.4. artikulua) aurretik adierazitako eskumenei datxezkion eskubide eta betebeharren ezarpena eta ihardue-

chos y obligaciones inherentes a las competencias anteriormente enunciadas.

En su virtud, a propuesta del Diputado Foral titular del Departamento de Cultura y previa deliberación del Consejo de Diputados en sesión celebrada en el día de hoy,

DISPONGO:

Aprobar la Reglamentación sobre actividades arqueológicas en el Territorio Histórico de Alava cuyo texto se acompaña en documento anexo.

Vitoria-Gasteiz, a 23 de abril de 1991.— El Diputado General, FERNANDO BUESA BLANCO.— El Diputado Foral titular del Departamento de Cultura, JOSE RAMON PECIÑA APAOLAZA.

## REGLAMENTACION SOBRE ACTIVIDADES ARQUEOLOGICAS EN EL TERRITORIO HISTORICO DE ALAVA

ARTICULO PRIMERO.— Objeto

Es objeto de la presente Reglamentación la regulación de la concesión de autorizaciones para realizar actividades arqueológicas y paleontológicas, terrestres y subacuáticas, en el ámbito del Territorio Histórico de Alava, salvo la prospección arqueológica sin extracción de tierra, que simplemente deberá ser notificada previamente a su realización, según estipula

ren garapena arautzea.

Horren ondorioz, Kultura Saileko Foru Diputatuaren proposamenez, eta Diputatuen Kontseiluak gaurko egunean egindako bilkuran gaia aztertu ondoren,

ERABAKITZEN DUT:

Arabako Foru Aldundian arkeologi iharduerei buruzko arauketa, zeinen testua honekin batera doan eranskinean ematen den, onestea.

Vitoria-Gasteiz, 1991ko apirilaren 23a.— Diputatu Nagusia, FERNANDO BUESA BLANCO.— Kultura Saileko Foru Diputatua, JOSE RAMON PECIÑA APAOLAZA.

## ARABAKO HERRIALDE HISTORIKOAN ARKEOLOGI IHARDUEREI BURUZKO ARAUKETA

LEHEHENGO ARTIKULUA.— Xedea.

Oraingo Arauketa honen xedea hauxe da: Arabako Herrialde Historikoaren eremuan lehorreko eta urpeko arkeologi eta paleontologi iharduerak burutzeko baimenak ematea. Horietatik salbuesten da lurrik atera gabeko arkeologi miaketa, egin aurretik jakinerazi besterik ez bait da beharrezkoa izango, Euskadiko Kultur Ondareari buruzko Legearen 45.1. artikuluan





el artículo 45.1 de la Ley de Patrimonio Cultural Vasco.

Tendrán la consideración de actividades arqueológicas y paleontológicas los estudios de arte rupestre, así como las prospecciones, sondeos, excavaciones, controles y cualesquiera otras que afecten a bienes o zonas arqueológicas o paleontológicas, de conformidad con las siguientes definiciones:

A) Prospección arqueológica: Es la exploración del terreno dirigida a la búsqueda de toda clase de restos históricos o paleontológicos. Según la técnica a utilizar, la prospección arqueológica podrá ser:

a) Prospección sin extracción de tierra, la cual se subdivide en:

- Prospección visual: Es la exploración superficial con reconocimiento del terreno.

- Prospección geofísica: Es el estudio del subsuelo mediante la aplicación de las ciencias físicas.

b) Prospección con extracción de tierra, que a su vez se subdivide en:

- Prospección con catas: Es la extracción de tierra en un espacio delimitado con el fin de comprobar la existencia de un yacimiento arqueológico en el lugar. Se dará por finalizada cuando aparezcan las primeras evidencias arqueológicas.

- Prospección mecánica: Es la extracción

ezarrita dagoen arabera.

Arkeologi eta paleontologi ihardueratzat zera hartuko da: labar-arteari buruzko azterketak, baita arkeologi edo paleontologi ondasun edo eremuetan eragina duten mikaketak, zundaketak, indusketak, kontrolak eta beste edozein ekintza, ondorengo definizioen arabera:

A) Arkeologi miaketa: Edozein motatako histori edo paleontologi aztarnen bila egindako lur arakaketa da. Erabiltzekoa den teknikaren arabera, arkeologi miaketa tanketa hauetakoa izan daiteke:

a) Lurrik atera gabeko miaketa, honela sailkatzen dena:

- Begi miaketa: azaleko arakaketa da, lurra aztertuaz.

- Miaketa geofisikoa: zientzia fisikoak erabiliz lurrazpia aztertzea da.

b) Lurra atereaz egiten den miaketa, honela sailkatzen dena:

- Zulatze miaketa: Eremu mugatu batean, bertan azternategi arkeologikorik badagoen egiaztatzeko, egiten den lur ateraketa da. Lehenengo agergarri arkeologikoak azaltzen direnean amaitutzat emango da.

— Miaketa mekanikoa: Zundaketa meka-

de testigo mediante sondeo mecánico. Se dará igualmente por finalizada cuando aparezcan las primeras evidencias arqueológicas.

B) Sondeo arqueológico: Es la excavación de reducidas dimensiones en relación y proporción al todo, con objeto de reconocer la secuencia cultural de un yacimiento arqueológico.

C) Excavación arqueológica: Es la actividad de investigar, documentar y desenterrar o extraer restos arqueológicos y paleontológicos atendiendo a la estratigrafía de los sedimentos.

D) Control arqueológico: Es la intervención en un proceso de obras que afectan o pueden afectar a un espacio de posible interés arqueológico, consistente en la supervisión de aquéllas, estableciendo las medidas oportunas que permitan la conservación o documentación, en su caso, de las evidencias o elementos de interés arqueológico y de su contexto.

Estas actuaciones tendrán carácter de urgencia en los casos en que su conservación esté amenazada, a cuyos efectos será de aplicación el procedimiento administrativo que conlleva tal declaración.

ARTICULO SEGUNDO.— Competencia.

La concesión, renovación, suspensión y revocación de las autorizaciones aludidas en el artículo primero corresponde al Diputado Fo-



niko bidez lekukoa ateratzea da. Halaber, lehenengo agergarri arkeologikoak azaltzen direnean amaitutzat emango da.

B) Zundaketa arkeologikoa: Osotasunarekiko erlazioan eta proportzioan neurri txikiko indusketa da, aztarnategi arkeologiko baten sekuentzia kulturala ezagutzeko egina.

C) Indusketa arkeologikoa: Arkeologi eta paleontologi aztarnak, jaulkinen estratigrafia kontutan izanez, ikertu, dokumentatu eta lurretik ateratzean datzan ekintza da.

D) Kontrol arkeologikoa: Arkeologi aldetik interesgarria izan daitekeen eremu batean eragina duten edo izan dezaketen obra-prozesu batean eskuhatzea da, obra horiek ikuskatuz eta arkeologi interesa duten agergarriak edo elementuak, holakorik izanez gero, eta bere ingurua artatzeko edo dokumentatzeko bide ematen duten neurri egokiak hartuz.

Iharduketa hauek presazkoak izango dira haien artapena arriskutan dagoen kasuetan. Ondorio hauetarako, aplikatzekoa izango da presazko deklarazioa berekin daraman administrazio prozedura.

BIGARREN ARTIKULUA.— Eskumena.

Lehenengo artikuluan aipatutako baimenak ematea, berritzea, etetea eta ezeztatzea Kultura Saileko Foru Diputatuari dagokio, zei-

ral del Departamento de Cultura, quien resolverá previo informe elaborado por los técnicos arqueólogos de la Diputación Foral, y a propuesta de la Dirección de Patrimonio Cultural, quien, en su caso, podrá solicitar asesorías de técnicos de otros Departamentos de la Administración Foral o de expertos ajenos a ella.

Las autorizaciones se concederán sin perjuicio de otras autorizaciones o licencias que sean necesarias, en su caso, por aplicación de la legislación urbanística.

ARTICULO TERCERO.— Solicitudes.

1.- Podrán solicitar y obtener autorización para la realización de las actividades reguladas en esta disposición las personas con titulación académica superior directamente relacionada con la actividad arqueológica, o, excepcionalmente, quien acredite su actividad científica en materia arqueológica, integradas en un programa de investigación de los siguientes centros o avalados por los mismos:

a) Departamentos directamente relacionados con la actividad arqueológica de las universidades enclavadas en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

b) Museos arqueológicos (o Secciones de Arqueología de museos no monográficos) enclavados en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

c) Otras instituciones científicas sitas en el



nek Foru Aldundiko arkeologi teknikariek gertatutako informea aurretiaz delarik eta Kultu Ondarearen Zuzendaritzaren proposamenez erabakiko duen. Azken honek, kasua denean, Foru Administrazioaren beste Sail batzuetako teknikariengandik edo handik kanpoko adituengandik aholkamendua eskatu ahal izango du.

Baimenak, kasua denean, hirigintz legeria aplikatuz beharrezkoak diren beste baimen edo lizentzien kalterik gabe emango dira.

HIRUGARREN ARTIKULUA.— Eskaerak.

1. Xedapen honetan araututako iharduerak burutzeko baimena, Arkeologi iharduerarekin zuzenean loturiko goi-mailako ikasketa titulazioa duten pertsonek edo, salbuespenez, arkeologi alorreko bere iharduera zientifikoa kreditatzen dutenek lortu ahal izango dute, ondorengo zentru hauen ikerketa egitarau batean sarturik edo beraiek abalaturik:

a) Euskal Herriko Autonomi Elkartean finkatutako unibertsitateen arkeologi ihardueraren zuzenean loturiko Sailak.

b) Euskal Herriko Autonomi Elkartean finkatutako Arkeologi Museoak (edo monografikoak ez diren museoetako Arkeologi Sailak).

c) Euskal Herrian finkatuta egon eta Arkeo-

País Vasco que gocen de reconocido prestigio en Arqueología, o aquéllas (también de reconocido prestigio) que situadas fuera del País Vasco lo soliciten en régimen de colaboración con alguna de las anteriores.

d) Administraciones de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

2. Cada solicitante podrá obtener autorización solamente para una actuación en los casos que se refieran a sondeos y excavaciones. Excepcionalmente, podrá simultanear más de una autorización para actuaciones fundamentadas en principios de urgencia o de salvaguarda del Patrimonio.

Se entiende que, una vez cumplido íntegramente el programa autorizado, el arqueólogo podrá solicitar nuevas autorizaciones.

No se concederán nuevos permisos de excavación en tanto no se cumpla el programa aprobado por la Diputación Foral de Alava y tras estudiar íntegramente la secuencia del yacimiento.

ARTICULO CUARTO.— Documentación.

1. Las solicitudes de autorización para realizar actividades arqueológicas deberán dirigirse al Departamento de Cultura de la Diputación Foral de Alava e irán acompañadas de los documentos que a continuación se relacionan, en caso de que se trate de primera actuación:

a) Instancia cumplimentada por el Direc-

logi alorrean prestigio ezaguna duten beste instituzio zientifikoak, edo Euskal Herritik kanpokoak izanik, aurrekoetariko batekiko lankidetza erregimenean eskatzen dutenak (hauek ere prestigio ezagunekoak).

d) Euskal Herriko Autonomi Elkarteko Administrazioak.

2. Eskatzaile bakoitzak iharduketa bakar baterako baimena lortu ahal izango du, zundaketa eta indusketa kasuetan. Salbuespenez, aldi berean baimen bat baino gehiago eduki ahal izango du presazko edo Ondarearen defentsazko printzipioetan oinarrituriko ekintzetarako.

Baimendutako egitaraua bere osoan bete eta gero, arkeologoak baimen gehiago eskatu ahal izango dituela ulertzen da.

Ez da indusketarako baimen gehiagorik emango Arabako Foru Aldundiak onetsitako egitaraua betetzen ez den bitartean, eta hori aztarnategiko sekuentzia erabat aztertu ondoren.

LAUGARREN ARTIKULUA.— Dokumentazioa.

1. Arkeologi iharduera burutzeko baimen eskaerak Arabako Foru Aldundiaren Kultura Sailari zuzendu beharko zaizkio, eta, lehenbiziko iharduketa izatekotan, ondoren adierazten diren dokumentuak eramango dituzte erantsita:

a) Burutzeko lanen Zuzendariak betetako

tor de los trabajos a realizar. A estos efectos, únicamente se admitirá la existencia de un Director responsable ante la Administración.

b) Certificación justificativa de los requisitos exigidos a los solicitantes en el artículo Tercero 1.

c) Solicitud de la sigla correspondiente, dirigida al Museo de Arqueología de Alava.

d) Memoria detallada de los objetivos y proyecto de la actuación a llevar a cabo, especificando:

d.1. Informe sobre el yacimiento, que comprenda descripción, situación con expresión de coordenadas geográficas, comarca y término municipal.

d.2. Plano topográfico, fijándose los límites del yacimiento y el de los terrenos donde se ubica.

d.3 Programa y calendario de los trabajos a efectuar durante la campaña para la cual se solicita autorización.

d.4. Justificación del interés de la actuación.

d.5. Presupuesto y posibles fuentes de financiación.

d.6. Propuesta de las medidas de protección y conservación que se consideren oportunas.

e) Autorización escrita del propietario del



eskabidea. Ondorio hauetarako, Administrazioaren aurrean erantzunkizuna duen zuzendari bakar bat onartuko da.

b) 3.1. artikuluan eskatzaileei beharretsitako baldintzak betetzen direlako ziurtapena.

c) Dagokion siglaren eskaera, Arabako Arkeologi Museoari zuzendua.

d) Burutzeko iharduketaren helburuen txosten zehatza eta proiektua, ondorengoak zehaztuz:

d.1. Aztarnategiari buruzko informea, deskripzioa eta kokapena barne hartzen dituena (koordinatu geografikoak, eskualdea eta udal barrutia adieraziz).

d.2. Plano topografikoa, aztarnategiaren mugak eta bera kokatuta dagoen lurrak jarrita.

d.3. Baimen eskaeraren helburua den kanpainan zehar burutu beharreko lanen egitaraua eta egutegia.

d.4. Iharduketaren interesaren justifikazioa.

d.5. Aurrekontua eta daitezkeen diru iturriak.

d.6. Bidezkotzat jotzen diren artapen eta babes neurrien proposamena.

e) Iharduketa egin behar den lurraren ja-

terreno donde vaya a tener lugar la actuación.

f) Comunicación de los especialistas con los que cuenta para llevar a cabo el estudio interdisciplinar.

2. En los casos en que no se trate de primera actuación, sino de posteriores campañas, únicamente habrán de presentarse los documentos señalados en los apartados a) y d) especificando los apartados 3, 5, 6 y e).

ARTICULO QUINTO.- Plazos.

El plazo de presentación de solicitudes finalizará el 31 de diciembre del año anterior a aquél en que se pretenda realizar la excavación u otra actividad, excepto en el caso de actuaciones de urgencia y de salvaguarda del Patrimonio.

Las autorizaciónes caducarán el 31 de diciembre del año para el que han sido otorgadas.

ARTICULO SEXTO.— Responsabilidades del Director

Una vez concedida la correspondiente autorización, el Director de la actuación asumirá las siguientes responsabilidades:

a) Comunicar al Museo de Arqueología de Alava las modificaciones habidas en el calendario propuesto.

b) Asistir directamente a las tareas de campo y nombrar un delegado cuando haya de ausentarse excepcionalmente, el cual deberá

bearen idatzizko baimena.

f) Zientziarteko azterlana burutzeko dauzkan espezialisten berri.

2. Lehenbiziko iharduketa ez, baizik eta geroagoko kanpainak diren kasuetan, a), d) (3, 5 eta 6. puntuak zehaztuz) eta e) ataletan adierazitako agiriak bakarrik aurkeztu beharko dira.

BOSTGARREN ARTIKULUA.— Epeak.

Eskaerak aurkezteko epea, indusketa edo bestelako iharduera egin nahi den urtearen aurreko abenduaren 31an amaituko da, presazko eta Ondarearen defentsarako iharduketen kasuan ezik.

Baimenak, dagokien urteko abenduaren 31an iraungiko dira.

SEIGARREN ARTIKULUA.— Zuzendariaren erantzunkizunak

Dagokion baimena eman eta gero, iharduketaren Zuzendariak ondorengo erantzunkizunak hartuko ditu bere gain:

a) Proposatutako egutegian izandako aldaketak Arabako Arkeologi Museoari jakinerazi.

b) Bertan egiten diren lanetan egon, eta salbuespenezko izaeraz kanpora joan behar duenean ordezkari bat izendatu. Honek beha-



reunir la cualificación necesaria y conocer la problemática del yacimiento. Esta sustitución excepcional, que deberá ser comunicada al Museo de Arqueología de Alava, no podrá sobrepasar una cuarta parte del tiempo de duración de la campaña.

c) Presentar ante el Museo de Arqueología de Alava un informe suficientemente significativo sobre los resultados de la campaña antes del 31 de diciembre de cada año, requisito éste que será indispensable para el otorgamiento de nuevas autorizaciones.

Este informe irá acompañado de cuanta documentación gráfica y fotográfica sea necesaria para la comprensión del mismo y la posterior interpretación del yacimiento y sus materiales.

d) Presentar igualmente una Memoria sobre propuestas de conservación que, como consecuencia de las actuaciones realizadas, convendría adoptar.

e) Realizar un Inventario de los materiales obtenidos, con identificación de la estratigrafía de la que proceden.

f) Depositar los materiales obtenidos durante la campaña, de conformidad con lo regulado en el artículo Séptimo.

g) Presentar una Memoria Científica, según lo establecido en el artículo octavo de esta disposición.



rrezko gaikuntza eduki eta aztarnategiaren problematika ezagutu beharko du. Salbuespenezko ordezpen hau Arabako Arkeologi Museoari jakinerazi beharko zaio eta ezin izango da kanpainak irauten duen denboraren laurdena baino luzeagoa izan.

c) Arabako Arkeologi Museoaren aurrean, urte bakoitzeko abenduaren 31a baino lehen, kanpainaren emaitzei buruzko informe aski esanguratsua aurkeztu. Baldintza hau ezinutzizkoa izango da baimen gehiago eman ahal izateko.

Informe honek erantsita eramango du bera ulertzeko eta aztarnategia eta bertako materialak geroago interpretatu ahal izateko beharrezkoa den dokumentazio grafiko eta fotografiko guztia.

d) Egindako iharduketen ondorioz hartu behar liratekeen artapen proposamenei buruzko Txosten bat ere aurkeztu.

e) Bildutako materialen inbentarioa egin, beraiek datozen estratigrafia identifikatuz.

f) Kanpainan zehar bildutako materialak 7. artikuluan arautakoaren arabera gordailatu.

g) Txosten Zientifiko bat aurkeztu, xedapen honen 8. artikuluan ezarritakoaren arabera.

ARTICULO SEPTIMO.— Depósito de Materiales.

Los titulares de las autorizaciones concedidas, en el plazo de 1 año desde la fecha de finalización de la campaña, presentarán ante el Museo de Arqueología de Alava, los materiales obtenidos durante la misma, junto con el inventario que haya elaborado el Director de la actuación, según lo indicado en esta Reglamentación (artículo Sexto, e).

El material arqueológico ingresado estará debidamente acondicionado (limpio, siglado, etiquetado y empaquetado). Si ofreciera, a juicio del arqueólogo, problemas de conservación, se adjuntará un informe complementario haciendo hincapié en los aspectos a tenerse en cuenta.

Excepcionalmente, por causas justificadas, se podrá solicitar prórroga en el depósito regulado de los materiales en el Museo.

En tanto dichos materiales no sean entregados en el Museo, deberán ser depositados, una vez finalizada la campaña, en el centro de investigación que avaló el proyecto.

ARTICULO OCTAVO.— Memoria Científica

El Director de la actuación arqueológica autorizada deberá presentar una Memoria Científica, una vez finalizada la misma, en el

ZAZPIGARREN ARTIKULUA.— Materialen gordailaketa

Emandako baimenen titularrak, kanpaina bukatzen den egunetik urtebeteko epearen barruan, hartan lortutako materialak aurkeztuko dituzte Arabako Arkeologi Museoan, Arauketa honen 6.e) artikuluan adierazitakoaren arabera iharduketaren zuzendariak gertatu duen inbentarioarekin batera.

Sartutako material arkeologikoa behar bezala egokiturik egongo da, hau da, garbia, siglaturik, etiketaturik eta paketaturik. Arkeologoaren eritziz, artapen arazorik baldin badu, osagarrizko informe bat erantsiko da, kontutan hartu beharreko zerak azpimarkatuz.

Salbuespenez, bidezko arrazoiengatik luzamendua eskatu ahal izango da materialak arauzko moduan Museoan gordailatzeko.

Material horiek Museoan entregatzen ez diren bitartean, kanpaina bukatuta gero, proiektua abalatu zuen Ikerketa Zentruan gordailatu beharko dira.

ZORTZIGARREN ARTIKULUA.— Txosten zientifikoa

Baimendutako arkeologi iharduketaren zuzendariak, hura bukatuta, Txosten Zientifiko bat aurkeztu beharko du bertako lanak amaitzen

plazo de 2 años, contados a partir de la finalización de los trabajos de campo.

La Memoria Científica se entregará en el Museo de Arqueología de Alava.

En actuaciones de desarrollo plurianual, la entrega de la Memoria Científica se podrá efectuar una vez finalizada la excavación de un determinado nivel arqueológico o (si se consiera necesario) de un determinado período del yacimiento y, en cualquier caso, una vez transcurridos 4 años consecutivos de campañas en un mismo yacimiento, deberá presentarse la Memoria Científica en el plazo máximo de 2 años, siendo ésta preceptiva para la obtención de un nuevo permiso.

Excepcionalmente, por causas justificadas, se podrá solicitar prórroga en el depósito regulado de la Memoria Científica preceptiva, entendiéndose que durante ese tiempo se está llevando a cabo la dirección de una actuación arqueológica.

ARTICULO NOVENO.— Propiedad Intelectual y Derechos de Publicación.

Los materiales, documentación, informes preliminares y Memorias Científicas depositadas en el Museo de Arqueología de Alava, tendrán carácter reservado al Director de la actuación y sólo mediante autorización expresa del mismo, y en todo caso, de acuerdo con los plazos que señala la Ley de Patrimonio Cul-



direnetik bi urteko epearen barruan.

Txosten zientifikoa Arabako Arkeologi Museoan entregatuko da.

Urte bat baino gehiagotan garatzen diren iharduketetan Txosten Zientifikoaren entrega, maila arkeologiko jakin bateko edo aztarnategiaren denboraldi jakin bateko indusketa amaitutakoan egin ahal izango da eta, edozein modutan ere, aztarnategi berean lau urte bata bestearen ondoren kanpainan eman eta gero, Txosten Zientifikoa gehienez ere 2 urteko epearen barruan aurkeztu beharko da, baldintza hau baimen gehiago lortzeko derrigorrezkoa izango delarik.

Salbuespenez, bidezko arrazoiengatik luzamendua eskatu ahal izango da aginduzko Txosten Zientifikoa arauzko moduan gordailatzeko, horren bitartean arkeologi iharduketa bat zuzentzen ari dela ulertuta.

BEDERATZIGARREN ARTIKULUA.— Jabetza intelektuala eta argitalpen eskubideak

Arabako Arkeologi Museoan gordailatutako materialak, dokumentazioa, ataurreko informeak eta Txosten Zientifikoak iharduketaren zuzendariari erreserbaturik egongo dira eta bakar-bakarrik, beraren baimen espresua dela medio, eta beti ere Euskadiko Kultur Ondareari buruzko Legean adierazten diren epeak

tural Vasco, podrán ser consultados por otros investigadores.

La Diputación Foral de Alava tendrá derecho preferente frente a terceros para proceder a la publicación de la Memoria Científica de aquellos proyectos arqueológicos que haya subvencionado en su totalidad o mayoritariamente.

No obstante, si el Director de la actuación, por sus propios medios quisiera publicar la Memoria, deberá comunicarlo a la Diputación Foral de Alava para su autorización, si así se estima procedente.

La Diputación Foral de Alava podrá proceder a la divulgación de los resultados anuales detallados en los informes preliminares remitidos al Museo de Arqueología, en cumplimiento de lo dispuesto en el artículo Sexto, c de esta Reglamentación, en los medios que considere oportunos.

ARTICULO DECIMO.— Suspensión y Revocación.

Serán causas de suspensión y revocación de permisos las que a continuación se detallan:

a) La falta de presentación de la Memoria Científica durante el plazo establecido al efecto.

b) La alteración del proyecto presentado sin autorización de la Diputación Foral de Alava.

c) La actuación insatisfactoria del equipo

betez, beste ikertzaile batzuk kontsultatu ahal izango dituzte.

Arabako Foru Aldundiak hirugarrenekiko lehentasunezko eskubidea izango du bere osoan edo gehiengoan subentzionatu dituen proiektu arkeologikoen Txosten Zientifikoa argitaratzeko.

Hala ere, iharduketaren zuzendariak bere bitartekoez Txostena argitaratu nahi izanez gero Arabako Foru Aldundiari jakinerazi beharko dio honek baimena eman dezan, bidezkoa baderitzo.

Arabako Foru Aldundiak, Arauketa honen 6.c) artikuluan ezarritakoa betez Arkeologi Museoari bidalitako ataurreko informeetan zehaztutako urteroko emaitzak berak egokitzat jotzen dituen bideetatik zabaldu ahal izango ditu.

HAMARGARREN ARTIKULUA.— Etendura eta ezeztapena

Baimenak eteteko eta ezeztatzeko arrazoiak izango dira ondoren adierazten direnak:

a) Txosten Zientifikoa horretarako ezarritako epearen barruan ez aurkeztea.

b) Aurkeztutako proiektua Arabako Foru Aldundiaren baimenik gabe aldatzea.

c) Lantaldeak, bera abalatzen duen Zen-

de trabajo, a juicio del Centro o Institución que lo avala, si así se estima también por la Diputación Foral de Alava.

d) El incumplimiento de cualquier otra obligación señalada en la presente disposición.

ARTICULO UNDECIMO.— Supuestos Especiales.

De las actuaciones arqueológicas que no requieran autorización, pero sí notificación previa a la Diputación Foral de Alava (prospección arqueológica sin extracción de tierra), se enviará, antes del 31 de diciembre, un informe escrito de los resultados obtenidos de las prospecciones comunicadas a lo largo del año.

El ingreso de los materiales recogidos como consecuencia de la prospección arqueológica sin extracción de tierra, notificada a la Diputación Foral de Alava, se realizará en el plazo máximo de 1 año desde su descubrimiento.

ARTICULO DUODECIMO.— Hallazgos Casuales.

El descubrimiento de hallazgos arqueológicos o paleontológicos casuales deberá ser notificado inmediatamente a la Diputación Foral de Alava o al Ayuntamiento correspondiente. En todo caso, el Ayuntamiento deberá ponerlo en conocimiento de la Diputación Foral de Alava en un plazo de 48 horas.

Los objetos y restos materiales de interés



tru edo Erakundearen eritziz, behar ez bezala ihardutea, Arabako Foru Aldundiak ere horrela baderitzo.

d) Xedapen honetan ezarritako beste edozein eginbehar ez betetzea.

HAMAIKAGARREN ARTIKULUA.— Balizko bereziak

Baimenik ez, baina Arabako Foru Aldundiari aldez aurretik jakineraztea behar duten arkeologi iharduketetan (lurrik atera gabeko arkeologi miaketak), urtean zehar jakinerazitako miaketetatik lortutako emaitzei buruzko informe idatzia bidaliko da abenduaren 31a baino lehen.

Arabako Foru Aldundiari jakinerazitako lurrik atera gabeko miaketa arkeologikoaren ondorioz bildutako materialen sarrera gehienez ere haien aurkikundetik urtebeteko epearen barruan egingo da.

HAMABIGARREN ARTIKULUA.— Halabeharrezko aurkikundeak

Halabeharrezko aurkikunde arkeologiko edo paleontologikoak berehala Arabako Foru Aldundiari edo dagokion Udalari jakinerazi beharko zaizkio. Udalak beti ere 48 ordu baino lehen jakinerazi beharko dio Arabako Foru Aldundiari.

Interes arkeologikoa edo paleontologikoa

arqueológico o paleontológico descubiertos casualmente deberán ser mantenidos en el lugar en que han sido hallados hasta que la Diputación Foral de Alava dictamine al respecto. Excepcionalmente, en el caso de que corran peligro de desaparición o deterioro, deberán ser entregados, si la naturaleza del bien lo permite, en el Museo de Arqueología de Alava. En tanto no sean entregados, al descubridor le serán de aplicación las normas del depósito legal.

ARTICULO DECIMOTERCERO.— Inspección.

La Diputación Foral de Alava se reserva el derecho de inspeccionar las actividades reguladas en esta Reglamentación, así como a modificar el contenido de la autorización si el resultado de la inspección así lo aconseja.

DISPOSICION TRANSITORIA.

Con el objeto de regular las actuaciones a llevar a cabo durante 1991, y dado que el plazo de solicitudes estaría agotado con anterioridad a la entrada en vigor de esta normativa, se tramitarán todas las solicitudes recibidas hasta el 1.10.91, y durante todo el año, para los casos de urgencia y controles arqueológicos.

DISPOSICION FINAL.

La presente Reglamentación entrará en vigor el mismo día de su publicación en el BOLETIN OFICIAL del Territorio Histórico de Alava.

duten gauzak eta materialen hondarrak, halabeharrez aurkitzen direnean, aurkitu diren lekuan bertan eduki beharko dira Arabako Foru Aldundiak horri buruz erizpena ematen duen arte. Salbuespenez, desagertzeko edo andeatzeko arriskurik badute, Arabako Arkeologi Museoan entregatu beharko dira, ondasunaren izaerak posible egiten badu. Entregatzen ez diren bitartean, aurkitzaileari aplikagarriak izango zaizkio legezko gordailuari buruzko arauak.

HAMAHIRUGARREN ARTIKULUA.— Ikuskapena

Arabako Foru Aldundiak beretzat erreserbatzen du Arauketa honetan araututako iharduerak ikuskatzeko eskubidea, baita baimenaren edukia aldatzekoa ere, ikuskapenaren emaitzak hala kontseilatzen badu.

XEDAPEN IRAGANKORRA

1991.ean zehar burutzeko iharduketak arautzeko helburuaz, eskaerak aurkezteko epea arautegi hau indarrean hasi baino lehen amaituta egongo litzatekeenez gero, 91-10-1era arte (eta presazko kasuetarako eta kontrol arkeologikoetarako, urte guztian zehar) jasotako eskaera guztiak izapidatuko dira.

AZKEN XEDAPENA

Arauketa hau Araba Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALean argitaratzen den egun berean hasiko da indarrean.




**DIPUTACION FORAL DE ALAVA**
DEPARTAMENTO DE CULTURA

**ARABAKO FORU ALDUNDIA**
KULTURA SAILA